## SARRERA

Une batez, egiteari utzi, gelditu eta hausnartzeko tartea hartzeko gonbidapena da hau. Zuen herrian eskola-kirola sustatzen aritzen zareten eragileak mahai baten bueltan eseri, eta elkarrekin daukazuen eskola-kirolaren ereduari buruz hitz egiteko aukera. Eraiki nahiko zenuketen eskola-kirolaren eredua amesteko proposamena.

Euskal Herriko hainbat txokotako eskola-kirolean dihardugun eragileok, elkarrekin eta elkarrengandik ikasiz, "Eskola Kirola. Gogoeta Kolektiborako Tresna" sortu dugu: tokian tokiko eskola-kiroleko egitasmo komunitarioak sortzeko hausnarketarako gakoak emanez. Tokian tokiko programak eraldatuz, komunitate/ herriak eraldatzeko helburuarekin.

Horretarako, tokian-tokian babestutako eremua sortzea proposatzen dugu; jarduera fisikoaren bidez balio hezitzaileak landu, eta haurrak garapen egokia izan dezan. Hori lortzeko, hausnarketarako baliabideak eskaintzea da tresna honen helburu nagusia.

Ezer baino lehen, eskola-kirolaz ari garenean zer ulertzen dugun adostea garrantzitsua iruditu zaigu. Tresna honetan eskola-kirola modu zabalean hartuko dugu, hau da, eskola-kirolak tokian-tokian sustatzen den jarduera fisikoa modu komunitarioan lantzeko egitasmoak barnebilduko ditu.

Izan ere, jolasa, ludikotasuna eta gorputza (fisikoa+emozionala+soziala) biltzen dituen kontzeptu bezala ulertuz gero, kirolak beste potentzialitate bat hartzen du, balioen hezkuntza-tresna gisa. Beraz, egun ezagutzen dugun multi-kirolaren programa hori gainditu, eta ikuspegia zabaltzea proposatzen dugu, tresnaren bidez.



Tresna honen hartzailea izan daiteke eskola-kirolak barnebiltzen duen komunitatea: ikastetxeak, hezitzaileak (entrenatzaileak), gurasoak, udala, kirol eskolak/klubak eta, noski, haurrak. Eta komeni da hausnarketa egiteko garaian eskola-kirolaren komunitatea osatzen duten eragile guztiak kontuan hartzea, edo horiek hausnarketan parte hartzea.

Eskola-kirola eraldatu nahi dugu, uste dugulako jendartea eraldatzeko tresna bikaina izan daitekeela; eskola-kirola eraldatuz, komunitatea eraldatzeko, alegia. Eraldaketa komunitatean egin behar denez, parte-hartzea izango da tresna nagusia.

Eskola-kirolaren komunitatea osatzen duten eragileei eta haurrei galdetuko zaie, eta komunitatearen inplikazioa bermatuko da prozesu osoan zehar; eskola-kirolean parte hartzetik (erabiltzaile edo kontsumitzaile gisa), eskola-kirola egitasmoko parte izatera pasatzeko.

Horretarako, galdera deserosoen zerrenda bat prestatu dugu. Erantzun bakar bat ez duten galderak direnez, euskarri honetan ez duzu erantzunik aurkituko. Hala ere, interesgarria iruditu zaigu gako edo pista batzuk biltzea, diskurtso bat eraikitzen hasteko.

Eta han eta hemen loratzen ari diren esperientzia ilusionagarri batzuk bildu ditugu, inspirazio iturri izan daitezkeelakoan. Hala ere, jakin badakigu leku batean une jakin batean funtzionatu duenak ez daukala zertan gurean funtzionatu.

Beraz, hartu tartea, gelditu, eseri, eta egin gogoeta jarraian planteatzen ditugun galderen inguruan. Zuen herriko eskola-kirolaz kontzientzia hartu, eta egun egiten duzuena zalantzan jarri: nolakoa izatea nahiko zenuketen irudikatu, eta eskola-kirolaren eredu berri bat eraikitzeko lehen pausoak ematen hasi.

## FILOSOFIKOAK

Eraldaketa tokian tokikoa izango bada ere, garrantzitsua iruditzen zaigu horren gutxieneko ezaugarriak adostea. ondoren jasotako galderei buruzko hausnarketa egitea, eta ikuspegi partekatua garatzea izan daiteke ezaugarriak zehazteko modua, nahiz eta gero nork bere tokiko ezaugarri eta baliabideetara egokitutako eredua eraikiko duen.

Horri dagokionez, garrantzitsua da galdera horiek nork eta noiz erantzun behar dituen erabakitzea, baita horretarako denbora eta espazioak sortzea ere, galderei elkarrekin erantzuteko.

- •Zer da haurra? Nola ikusten dugu, eskola-kirola zerbitzuaren erabiltzaile gisa edo gaitasundun subjektu aktibo parte-hartzaile bezala?
- •Zer da kirola? Egungo jendartean nola ulertzen da?
- •Zertarako izan beharko luke eskola-kirolak? Zein da bere helburua? Zein balio transmititu beharko lituzke?
- •Eskola-kirola izenak hori guztia barnebiltzen du egun?
- •Eskola-kirola heziketaren zati garrantzitsua dela esango zenuke?
- •Hezitzaileen profila nolakoa izan beharko litzateke?

Haurra jaiotzen denetik gaitasundun pertsona da. Ez da helduok gure jakintza eta esperientziatik bete beharreko ontzi huts bat. Ez da etorkizuneko pertsona, orain eta hemen da pertsona. Haurra ikusteko modu hau aldatzea ezinbestekoa da, gure herriko eskola-kirolaren eredua haurren beharretatik abiatuta eraldatu nahi baldin badugu; haurra eta bere behar fisiko, emozional eta afektiboak erdigunean kokatuko dituen eredua eraiki nahi badugu.

Haurra txikitatik subjektu aktibo eraikitzaile moduan ikusten hasten garenean, dena aldatzen da. Eskola-kirola haurrentzat egitetik beraiekin egitera pasatzen gara. Izan ere, euren hitza, beharrak eta motibazioak kontuan hartzetik has daiteke gure ereduaren eraldaketa.

Haurren pentsamendua disidentea da, oraindik ez dago normaltasunaren patroiaren menpe. Malaguzziren poemak dioen moduan: *haurrek ehun lengoaia dituzte, ehun esku, ehun pentsamendu. Pentsatzeko, jolasteko eta hitz egiteko ehun modu, harritzeko eta maitatzeko ehun modu,abesteko ehun alaitasun. Ehun mundu ulertzeko, aurkitzeko,irudikatzeko, ehun mundu amesteko.*

Heldu moduan, ehun moduetatik 99 mugatu beharrean, eta heldu bihurtzean komunikatzeko, entzuteko, maitatzeko, jolasteko, amesteko… ehun modu horietatik, normaltasunaren patroi horrek inposatzen digun modu bakar hori soilik mantendu beharrean, modu bakoitza indartu eta biderkatuko bagenu?

Pentsatzeko modu berri eta eraldatzaileak aurki ditzakegu haurrengan, eta gu geu behin izan ginen haur haiengan. Betiere, entzuteko prest bagaude, noski. Gorputz eta arima osoarekin entzuteko prest. Haurrei entzuten ikastea, aniztasuna entzuten ikastea izango baita. Eta bizikidetasuna eraikitzeko ezinbesteko premisa da hori. Entzutea, espero ez duguna itxoitea eta berau aurrera eramateko egiazko konpromisoa edukitzea baita.

Kultura eraldatzailea haurtzaroaren kulturarekin zuzenki uztartu dezakegu, beraz, biak ala biak pentsamendu- eta praktika-lerroak baitira. Haurrek euren modu etiko, estetiko, poetiko eta politikoa dute mundua ikusteko, eta gai dira euren bizitzari eta existentziari zentzua ematen dioten hipotesiak, teoriak eta metaforak eraikitzeko.

Hori garatu ahal izateko haurrek duten tresnarik garrantzitsuena JOLASA da. Jolas libre eta desegituratua. Hau da, haurrari bere barneko bulkadatik ateratzen zaion hori. Haurren jolasa, helduon ikerketa zientifikoarekin konparatu daitekeen ikasketa prozesua da, eta ikastea, ekintza kooperatibo eta komunikatiboa. Haurra eragile aktiboa da hor: jakintza eraikitzen duena eta munduaren gaineko esanahiak sortzen dituena, beste haur/herritar batzuekin elkarrekintzan.

Eskola-kirola eremu ez formaleko ikaskuntza prozesuaren parte izanik, izan daiteke haurraren ikaskuntza prozesuko mugarri bat? Horretarako gure eskola-kirolean jokotik jolasera jauzi egiteko prest gaude? Gaur egun kirola oro har jendartean ulertzen den moduan ulertzeak zentzurik badu eskola-kirolean? Kirol hegemonikoak sustatzen dituen balio berak sustatzeak zentzurik ba al dauka?

Norvegiako eskola-kirolaren ereduaren ardatza da jolas egin nahi duen orori jolasten uztea. Hori bezain sinplea. Edo hori bezain konplexua, kirolaren paradigma hegemonikoaren baitan burutu nahi baldin badugu.

***ERREFERENTZIA INTERESGARRIAK***


Aldaz, J. (2014). Kirol-politika, jokoa ala jolasa?. Uztaro: giza eta gizarte-zientzien aldizkaria, (89), 79-89.

Aldaz, J. (2020). Cuando el sueño de ser deportista de élite se puede convertir en pesadilla. Análisis crítico de las violencias en torno a los menores deportistas en itinerarios de alto rendimiento y de los mecanismos existentes para su protección. Machio, AI eta De la Mata, N. La integración social del/ la menor víctima a partir de la tutela penal, 695-742.

Aldaz, J.; Asurmendi, U.; Iturrioz, I. (2018). ¿Avanzamos hacia sociedades más EquitActivas?la experiencia guipuzcoana en materia política deportiva ante un reto global complejo. Deporte y sociedad: una aproximación desde el fenómeno del ocio. 101-119.

Azurmendi, J. (2000). Deporte educativo vs deporte competición. Problemática del deporte en la edad escolar. Deporte y actividad física para todos, (1), 9-27.

Garcia, M. (2014). Elitea imitatzen duen eredua aldatzeko lanean. Argia.

Muñoz, C. (2018). Participación de la infancia y los adolescentes. [Bideoa]. Youtube. TPA. (2010). Derecho a la participación. [Bideoa]. Youtube.

COALTER, F. (2007). A wider social role for sport. Who´s keeping the score?. New York: Routledge.




***ERREFERENTZIA INTERESGARRIAK***


Antigone Metodoa. (2020). Horman Poster. Ari! Sormena eta mugimendua.

Agirrezabalaga, A. (2016). Eskola kirola, eredu aldaketaren premian. Berria.

Azurmendi, A. (2017). Eskola kirolean neska-mutilen partaidetza mistoa edo banatua: datuetan oinarritutako proposamena. Hernaniko Udala eta Pasaiako Udala. Avento consultoria. Barquin, A. (2009). ¿De dónde son los hijos de los inmigrantes? La construcción de la identidad y la escuela". Educar.

Barquin, A. (2015). ¿Qué debe hacer la escuela con las escuelas familiares del alumnado inmigrante?. Educar.

Barquin, A. (2017). "Nire ikastetxean neska musulman batzuek ez dute dutxatu nahi hezkuntza fisikoaren ostean". Irakasle batzuen gogoetak. Zapia buruan eta ibili munduan!. Córdoba, E. (2019). Bailar el barrio 2019. Centro de Arte Dos de Mayo.

Gorputzaldiak: hezkuntza eta dantza artean.

Otegi, M. (2019). Eskola Kirola Irunen: Genero dibertsitatearen azterketa & Proposamen alternatiboa. [Gradu Amaierako Lana, Euskal Herriko Unibertsitatea]. Hezkuntza eta Kirol Fakultatea.

Torner, J. (2017). Neska eta mutilek elkarrekin ala banandurik jokatu behar dute?. Berria. Urbieta, M. (2016). Talde mistoak bai edo ez?. Berria.


## TOKIKOTASUNA ETA EGITURA

Ez dago eskola-kirolaren eredu bakar bat. Gai izan behar dugu tokian tokiko ezaugarrietara egokituko den eskola-kirolaren ereduak sortzeko; malguak, etengabe egokitzen arituko direnak; bertakoek, bertakoentzat eta bertako baliabideekin sustatuko dituztenak.

- •Herriko ezaugarrietara egokitzen den eskola-kirolaren eredu bat daukagula esango genuke?
- •Herriko hezkuntza komunitatea barnebiltzen du herriko eskola-kirolak? Eredu komunitarioa dela esango genuke? Herri sena, herri egitura bat daukagu?
- •Eskola kirola eskola-orduz kanpoko baina ikastetxeko jarduera izanik, zein mekanismoren bitartez bermatzen da ikastetxeko hezkuntza proiektuaren helburuei jarraipena ematen zaiela? Zein da ikastetxeekin daukagun harremana?
- •Herrigintzako eragileekin harremanik badaukagu? Nola aberastu dezakegu eskola-kirola herrigintzatik? Eraldaketan zein eragile izan ditzakegu aliatu herrian?
- •Eskola-kirolean nahi duguna ala ahal duguna egiten dugu? Zein baliabide beharko genituzke? Nondik lor ditzakegu? Baliabiderik badugu hezitzaileak formatzeko, koordinatzailearen figura bermatzeko...?

Herri hezitzailearen filosofia hezkuntzaren ardura partekatuan oinarritzen da. Hezkuntza ez delako familian edota eskolan bakarrik ematen den prozesua, eta ezta haurtzaroan hasi eta bukatzen dena ere. Nolabait, gu guztiok gure bizitza osoan hezigarriak eta aldi berean hezitzaileak garelako. Hezkuntza, etxeko eta eskolako lau paretak gainditu eta herrira hedatzen den kontinium bat delako. Herria bera badelako hezkuntzarako eduki, eragile eta testuinguru.

Ondorioz, herri batean dauden instituzio guztien ardura partekatua da hezkuntza. Herrietako instituzio publikoak, udalak, ikastetxeak, eremu ez formaleko eragileak, eta herrigintzakoak, denak izango dira herri horretako herritarren hezkuntzaren arduradunak. Eskola-kirolaren komunitatea osatzen dugunak ere bai.

Herri mailako eskola-kirolaren ereduak sustatu nahi baditugu, erakundeen arteko elkarlan horizontala sustatu beharko dugu, halabeharrez. Izan ere, egiteko modua egiten duguna bezain garrantzitsua edo garrantzitsuagoa izan ohi da sarritan.

***ERREFERENTZIA INTERESGARRIAK***


•Oñatiko eskola kirola
https://eskolakirola.eus/
•Leintz eskola kirola
https://leintzeskolakirola.com/
•Lizarrako eredua
http://www.estella-lizarra.com/eu/albisteak/brinka/
•Amasa-Villabonako eredua
www.multiekintzak.eus


## ERALDAKETA

Eraldaketa hitza askotan erabiltzen dugu. Baina eraldaketa aldaketa soila baino askoz gehiago da. Jendartea aldatzera bideraturiko ikuspegi berritzailea izan beharko luke. Berrikuntza dakarrena, askatzailea, iraultzailea… Paulo Freirek zioen bezala "Hezkuntzak ez du mundua aldatuko; mundua aldatuko duten pertsonak aldatuko ditu
.
Eskola-kirola eraldatzeak zentzua dauka, komunitatea eraldatzeko gaitasuna duen heinean; komunitatearen eraldaketak, eskola-kirola eraldatzen jarraitu dezan; etengabeko eraldaketa sustatuz.

- • Zer da eraldaketa? Nola ulertzen dugu?
- •Zer da zerbait eraldatzailea izatea? Aldatzea eraldatzea da?
- •Uste duzu eskola-kirola tresna eraldatzailea izan daitekeela? Jendartea eraldatzeko tresna?
- •Nola eraldatu dezakegu eskola-kirola, eta bere testuingurua?
- •Zein subjektuk parte hartu beharko lukete eraldaketa honetan, komunitarioa izan dadin?
- •Eraldaketa honi ekiteko aurre baldintzarik ba al dugu gure herrian?
- Subjektu horien elkargunerik badugu? Eskola-kirolak barnebiltzen duen komunitatea saretuta dago?
- •Zure egiteko moduak eraldatzaileak direla esango zenuke?

Eraldaketa norbanakotik hasten da. Aurrena norbera aldatu behar da, gero ingurua eraldatu ahal izateko. Eraldaketa prozesua da, progresiboa. Batzuetan, nahi baino makalago joan ohi dena, batez ere emaitzen zain baldin bagaude.

Eraldaketak amets bat izan behar du, amets kolektibo bat. Elkarrekin iritsi nahi dugun iparra, utopia partekatua.

Era berean, ipar horretarantz joan ahal izateko bide-orria izan behar da eraldaketa. Pauso egingarri eta mugarri lorgarriak izango dituen bide-orria. Pauso horietako bakoitza lortzean ospatzeko eta hurrengo mugarria definitzeko. Beraz, etengabeko berrikustea, malgutasunez aritzeko lizentziak hartzea, geure burua eta gure eskola-kirolaren eredua etengabe zalantzan jartzea eta berramestea eskatzen du eraldaketak.

Prozesua kolektiboa eta parte-hartzailea izan behar da. Eskola-kirolaren komunitatea osatzen dugun eragile guztien artean sentitu, pentsatu eta ekitekoa.



***ERREFERENTZIA INTERESGARRIAK***


Araolaza, O. (2019). Kirola, dantza eta generoa. Berria.

Egibar, M. (2021). Troya zaldia hil da, gora aisialdi subiranoa!.

Hik Hasi. (2008). XIBA proiektua. Hik Hasi.

Pasaiako Udala. (zg). PKB: Pasaiako kirol badia kluba. Pasaiako Udala.

Sasiain, I. (2021). Gorputz Hezkuntza eta Eskola Kirola: Osagarrizko bideak posible dira?. [Euskal Herriko Unibertsitatea - Hezkuntza eta Kirol Fakultatea].


## PROGRAMARI DAGOZKIONAK

Eskola-kirola aurrera eramateko sustatzen dugun programaren indargune eta ahulguneen inguruan hausnartzeko galderak planteatzen ditugu jarraian. Jakinda, programak zerbait bizia, malgua, urtetik urtera baloratu eta aldatu daitekeen zerbait behar duela izan.

***EGITEKO MODUEI BURUZKO GALDERAK***

- •Haurra gure eskola-kirolaren erdigunean dago?
- •Haurraren beharrak, garapena eta sozializazioa kontuan hartzen ditugu? Horien jarraipena egiten dugu?
- •Haurrek ba al dute programaren erabakietan parte hartzeko aukerarik?
- •Adin ezberdinetako haurrek batera jolastea bultzatzen dugu? Familiarekin edo herritarrekin batera jolasteko aukera eskaintzen diegu?
- •Gatazkak daudenean, nola kudeatzen ditugu?
- •Taldean sortzen diren lidergo-jarrerak eta botere-harremanak lantzen ditugu?
- •Talde kohesioa nola lantzen dugu?
- •Irabazledunik gabeko edo oroimenik gabeko jolasak egiten ditugu? Kooperazio jolasak egiten ditugu?
- •Nola kudeatzen ditugu emozioak taldean? Ba al dago emozioak kudeatzeko espaziorik? Eskaintzen al diogu denbora bat adimen emozionala

***BALIOEN ETA ZEHARKAKO HELBURUEN INGURUKO GALDERAK***

- •Lehiaren helburua zein da? Konpetitzea ala konparatzea?
- •Etnomotrizitateak edo euskal soinketak ba dute lekurik gure programan? Euskara eta euskal kultura sustatzen ditugu?
- •Haurrei beraien astialdia autokudeatzeko aukera eskaintzen diegu? Hezitzaileek badakite autokudeatutako saioak nola sortu eta bidelagun rolean zer egin?
- •Jolas espontaneoa non geratzen da? Zenbat denbora, espazio eskaintzen diogu horri?
- •Eskola-kirola egiteko leku zehatzak ditugu? Herria jolas eremu gisa berreskuratzeko tresna izan daiteke? Kalera ateratzen zarete? Herria jolas eremu moduan ikusten duzue? Naturarekin erlazionatzeko aukera eskaintzen diezue?
lantzeari eskola-kirolean?

Eskola-kirolari kendu behar diogu daukan ontasun hori. Berez ez da ez ona ez txarra. Tresna da. Eskola-kirolak zerbait positiboa izan behar badu, modu kontziente batean izan behar du, bestela jendarteko balore hegemonikoak errepikatu besterik ez ditugu egingo gure ereduan. Horren adibide argia da talde mistoena: lanketa kontzienterik gabe talde mistoek ez dute funtzionatzen, jendarteko jarrera matxistak errepikatzea besterik ez dugulako lortzen.

Zentzurik ba dauka eskola-kiroleko programa prestatzeak jakin gabe urte horretan zein umek parte hartuko duten bertan? Alderantziz ez genuke egin behar? Ikusi aurten ze talde daukagun, elkar ezagutu eta horren araberako programazio bat osatu, haurren beharretatik, motibaziotik eta parte-hartzetik abiatuz. Horrela, agian, esku-hartzean dugun taldearen aniztasunaren lanketa egokiagoa egiteko gaitasuna izango genuke? Malgutasunez jokatzen hasteko, zer behar dugu?

***ERREFERENTZIA INTERESGARRIAK***


Amenabar, B. (2019). Eta porteriak kenduko bagenitu?. Berria.

Gipuzkoako Foru Aldundia. (2018). Jolashezi. gipuzkoa.eus.

Guraso.eus. (2021). Tele eskola kirola. guraso.eus.

LHL erronka inklusiboa.

Orio, marea bizian. (2022). Haurren kale-jolas autonomoa eta aktiboa. Orio marea bizian.

Soin Heziketaren Aldeko Taldea.

Tuterako Futbol Taldea. Agerraldia. errigora. eus.

Zulaika, L.M. (2019). Kaietan haurrei bainatzea debekatu?. Berria


## ANIZTASUNEAN BERDIN ETA PAREKIDEDE

Eskola-kirola programaren helburua ahalik eta haur gehienengana iristea bada, kontuan izan beharko ditugu egungo jendartea zeharkatzen duten aniztasun guztiak: sexu, genero, desgaitasun funtzional edota kognitibodunak, pobrezian bizi direnak, indarkeria arazoak jasandakoak... Denei aukera berberak eskaintzeko, dauzkagun ahulguneak eta indarguneak identifikatu behar ditugu, eta horretarako hainbat galdera proposatzen ditugu jarraian. Izan ere, helburua ahalik eta haur gehien ahalik eta erosoen sentituko diren eskola-kirolaren eredua eraikitzea da.

- •Zer da aniztasuna? Nola ulertzen dugu?
- •Zer da hegemonia? Nola ulertzen dugu?
- •Nor da anitza? Ni anitza naiz? Gure eskola-kiroleko hezitzaileak anitzak gara?
- •Nola bizitzen/ ulertzen dugu aniztasuna eskola-kirolean?
- •Zein gorputz daude eta zeintzuk ez gure eskola-kirolean? Zergatik?

***SEXU ANIZTASUNA***

- •Gure taldean ume trans bat baldin badago, neskak eta mutilak banatzen dituen ereduan oinarritutako programa batek balio digu?
- •Trans haur batek aukera-berdintasunean parte hartu ahalko luke gure eskola-kirolaren programan?
- •Aldagela mistorik badaukagu?

***DESGAITASUN FUNTZIONALA ETA MENTALA***

- •Zein da izendapen egokiena behar espezifikoak dituzten pertsonentzat? Aniztasun funtzionala eta mentala ala desgaitasun funtzionala eta mentala?
- •Desgaitasun bat izatea desabantaila da?
- •Aspektro autista duen ume batek aukera-berdintasunean parte hartu dezake gure eskola-kirolean?
- •Espazioak prestatuta dauzkagu desgaitasun funtzionala duten haurren irisgarritasuna bermatzeko?
- •Badugu gaitasunik desgaitasun horiek guztiek eskatzen duten kudeaketa egiteko? Zer falta zaigu? Formazioa? Baliabideak?

***ANIZTASUN KULTURALA***

- •Formazio, sentsibilizazio nahikoa badaukagu gaiaren inguruan? Eta haurrekin zuzenean aritzen diren hezitzaileek badaukate egoera hauek guztiak praktikan kudeatzeko formazio eta baliabiderik?
- •Gure programak nola erantzuten die ikasle eta familien arteko bestelako aniztasunei (maila sozio-ekonomikoa, aniztasun kultura, etab.)?
- •Programan jasotzen dira kultura eta jatorri desberdinetatik datozen kirolak, jolasak, dantzak…?
- •Iritsi berria den ume batek parte hartu ahal izango luke aukera-berdintasunean gure eskola-kirolaren ereduetan? Zein ezagutza eta baliabide jarri beharko lirateke horrela izateko?

***HEZKIDETZA***

- •Neskak jendarte honen erdia dira, gure eskola-kirola programaren parte-hartzaileen ehuneko zenbat dira? Zergatik?
- •Taldeak mistoak izan behar duten ala ez erabaki aurretik, neskentzat erosoa eta erakargarria izango den eredua birpentsatu beharko genuke?
- •Haurrak talde mistoetan banatzeak bakarrik bermatz du hezkidetza eta aukera-berdintasuna? (genero baldintzarik gabeko hezkuntza, norbanakoen onarpena eta guztien ezaugarrien balioespena)
- •Eredu feministarekin lotzen diren jarduerak egiten dira? Zein testuingurutan eta nola? Gorputz adierazpena, dantza, erronka kooperatiboak, etab.

***AUKERA BERDINTASUNA***

- •Gure egungo eskola-kirolean herriko haur guztiek parte hartzeko aukera-berdintasuna dutela esango genuke?
- •Egoera zaurgarrian dauden haurren beharrak kontuan hartzen ditugu? Adibidez; kuota ordaindu ezin duten haurrak. Nola bermatzen dugu haur guztiek eskola-kirolerako sarbidea izatea?
- •Zein izaera eta eredutako jarduerak sustatu eta antolatzen ditugu? Daukagun eskola-kirolaren ereduak bermatzen al du benetako aukera-berdintasuna?
- •Ba al dugu harremanik herriko gizarte zerbitzuekin, parekidetasun sailarekin…?

Oro har, kezka dugu aniztasunaren gaiarekin asmatzen ari ote garen; aniztasunaren inguruan eraikitzen ari garen diskurtsoak ez ote diren lagunkoiegiak, alegia. Tresna honetan bertan irakurri berri dituzun aniztasunari buruzko galderen sailkapena bera ere bestetasunean oinarritzen da. Hegemonikoak ez diren pertsonak balira bezala anitzak. Gu ez, besteak, alegia. Gu gara sexualki anitzak? Gu gara aniztasun kulturalean sartzen garenak, ala besteak dira?

Denak gara anitzak, hau da, desberdinak. Baina gure egungo jendartean dauden botere harreman jakin batzuek desberdintasun horiek kategorizatu eta desberdinkeriak sortzen dituzte. Generoa, arraza, hizkuntza, maila ekonomikoa, desira edota gorpuzkera dela-eta zapalkuntza jaso dezakegu; gure errealitatea aintzat hartzen ez denean, behar guztiak bermatzen ez direnean, hizkuntzak denok islatzen ez gaituenean, gure ezagutza eta esperientziak gutxietsiak direnean…

Aniztasuna beti bazterrean/periferian kokatzen da, ez gu gauden erdigunean. Eta gu ari gara aniztasun hori kudeatzen. Adibidez: hezitzaileak anitzak dira? Ba dago hezitzaile ez hegemonikorik? Beltzik? Transexualik? Kontzientziarik badute gai hauen inguruan? Badakite honen inguruan ardura dutela? Kontziente dira erreferente bihurtzen direla haurrentzat? Nola bermatu dezakegu formakuntza, kontzientzia eta begirada hori?

Zirkunstantzia anitzak dira gure bizitzako momentu batean definitzen gaituztenak. Aldakorrak ere izan daitezke. Egoera anitzak aurki ditzakegu eta horregatik da hain garrantzitsua intersekzionalitatearen ideia. Ikuspegi honek aintzat hartzen du zapalkuntza desberdinen arteko lotura, eta bistaratu egiten du. Elkarrekin jorratu behar ditugu, elkarren menpekoak direlako. Ez baita gauza bera beltza eta aberatsa izatea edo beltza eta pobrea; edo emakumea eta bollera izatea; edo gizon psikiatrizatua edo emakume psikiatrizatua izatea.

Hori horrela izanik, nola sor ditzakegu ezberdinen arteko guneak? Desberdintasunean egoteko guneak? Benetan denok, gutako bakoitza, anitzak izango garen guneak. Horretarako, normala dena deseraiki beharko genuke. Erdigunea eta periferia deseraiki.

Geure buruari galdetu al diogu zeinentzako ari garen gure eskola-kirolean? Zeintzuk ez dauden gure eskola-kirolean eta zergatik? Hegemonikoak diren gorputz horientzat bakarrik ari gara? Hegemonikoak ez diren gorputzek behar gehiago edo beste behar batzuk izan ditzaketenean?

Honetan guztian hizkuntza oso garrantzitsua dela uste dugu. DESGAITASUN hitza erabiltzeko hautua egin dugu. Desgaitasun hitzak adierazten duelako desabantaila. Ez dugu adjektibo bezala ulertzen, ez ditugu gorputzak sailkatu nahi, adierazi nahi dugu kapazitismoa dagoen jendarte honetan gorputz batzuk gutxietsiak, baztertuak, ukatuak eta zapalduak direla. Hala ere, badakigu kolektibo batzuek aniztasun funtzionala terminoa erabili nahi dutela, eta horregatik autoizendapenerako eskubidea defendatzen dugu.

Izan ere, lengoaia klabea izan daiteke eraldaketarako. Izendatzea delako lehen pausoa. Eta izendatzeko erabiltzen dugun terminoekin erreferentzia argia egin behar diogu desberdintasun hori sortzen duen zapalkuntzari. Lengoaiak gatazkaren lekua non dagoen identifikatzeko balio behar du, hau da, zapalkuntza baten ardatza zein den (kapazitismoa, matxismoa, arrazakeria, klasismoa, kuerdismoa…). Mugimendu askatzaile askotan bereganatu egin dituzte irain gisa ulertzen diren hitzak, hain zuzen ere, boteretze prozesu honen bidez, irainaren mekanismoa deuseztatzeko. Maritxu, bollera, puta, tullida, eroa bezalakoak autoizendapen askatzaileak eta sortzaileak izaten dira sarri.

## ETA ORAIN ZER?

Zure herriko eskola-kirolaren ereduaren inguruan hausnartzeko tarte hau hartu ondoren, ekintzara pasatzeko unea da. Hausartu dugu egun gure herrian daukagun eskola kirol ereduaren inguruan, eta nolakoa izatea nahiko genuken amesteko tratea ere izan dugu. Elkarrekin eskola kirola eraldatzen hasteko ekintzara pasatzeko unea da beraz. Sentitu, pentsau eta ekin! Pausoz pauzo eraldaketa gauzatu ahal izateko, zer aldatu nahi genuke bihartik hasita? Zein baliabide behar ditugu horretarako? Zein instituziorekin edota herriko eragilerekin aritu ahalko ginateke elkarlanean horretarako? Nola inplikatuko dugu komunitatea eraldaketa honetan?



*Eraldaketa puntu ezberdinetatik abia dezakegu, baina abia gaitezen!*

## ESKERRAK

Eskola Kirola Gogoeta Kolektiborako tesna hau, hezkuntza eta kirol arloa pasioz bizi dituzten pertsonen artean osatu dugu. Bi arloen uztarketak haurren garapen integralean dituen onuren jakitun, eskola kirolak balioen hezkuntzan daukan potentzialiaiatean sinesten dugu eta komunitate osoa saretzeko tresna moduan bizi dugu.

Norabide honetan, Euskal Herriko txoko ezberdinetan loratzen ari diren egitasmoak ezagutzea eta balioan jartzea izan da lan metodologiaren oinarria. Horretarako, urtebetez herri arteko foro bat biltzen aritu gara, elkarrekin eta elkarrengandik ikasteko. Gaiaren inguruko zalantzak, kezkak, ametsak, esperientziak… elkarbanatuz, elkarrekin eskola-kirol eredu eraldatzaile bat eraikitzeko.

Gure eskerrik beroenak beraz, herri arteko foroan eta bidean zuen aletxoa jarri duzuen guztioi!

## PROIEKTU FITXA

Proiektuaren sustatzaileak

Proiektuaren izena

Proiektuaren narrazioa
Azaldu laburki proiektua

Helburuak
Aipatu zeintzuk izango diren proiektuaren helburuak.

Proiektuaren kokapena

Proiektuaren eskala
Aukeratu proiektuak hartuko duen eskala

Auzo maila / herri maila / eskualde maila / lurralde maila

Iraupena eta faseak
Adierazi proiektuak izango duen denbora tartea

Parte-hartzaileak
Aukeratu zein erpin dauden inplikatuta

Proposatutako lankidetza
Azaldu bakoitzak zer eskainiko dion proiektuari

Lan estrategia
Azaldu labur zein izango den proiektua garatzeko jarraituko den metodologia

Dirulaguntzak
Eskatu daitezkeen dirulaguntzak aipatu

Aurrekontua
Adierazi proiektu honetarako aurreikusten den gutxi gorabeherako aurrekontua



## KOADERNO BILDUMA:


1 Haurren aisialdi parte-hartzailea, euskalduna, hezitzailea eta herritarra garatzen
2 Nola sustatu haurren parte-hartzea ikuspegi feministatik
3 Nola egin udaleku parte-hartzailea
4 Nola egin ludoteka parte-hartzailea
5 Parkeak bizitzeko modu berriak
6 Jolasa: Eskubidea eta errealitatea
7 Arte hezkuntza eta prozesu kolaboratiboak
8 Herri antolamendua herri hezitzailearen ikuspegitik
9 Nerabezaroaren kultura eta parte hartzea


# ESKOLA KIROLA
## GOGOETA KOLEKTIBORAKO TRESNA

